

## GOBERNU BATZARRA

2015. 02. 06

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko otsailaren seian, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Ibai Iriarte San Vicente</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Lore Agirre Zipitria</b>	
<b>Hasier de los Rios Soraluze</b>	
<b>Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez.</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
	2.- Etorkinentzako errefortzua ikastetxeetan. Dirulaguntza ikastetxeei.
<b>Idazkaria:</b>	3.- Korrika.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	4.- Herri Urrats, Kilometroak eta Nafarroa Oinez.
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	5.- Dirulaguntzak kanpoko ikasleentzat.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	6.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.
	7.- BERRIZ Enpresa Tolosa Programa.
	8.- Dirulaguntza famili bati.
	9.- Kontratuen prezioak eguneratzeko proposamena.
	10.- 45/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko urtarrilaren 30ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## 2.- Etorkinentzako errefortzua ikastetxeetan. Dirulaguntza ikastetxeei.

Tolosako Udalaren laguntzari esker, euskarazko errefortzu eskolak ematen dira ikasle etorkinentzat Tolosako DBHko hiru ikastetxeetan: Laskorain ikastolan, Orixe institutuan eta Hirukide eskolapioak ikastetxean.

Aurtengo ikasturtean, 14-15 ikasturtean, irakasle bat ari da ematen errefortzu eskola horiek aipatutako hiru ikastetxeetan, eta ematen dituen zerbitzu horien fakturatzen dizkie hileru, Tolosako Udalak eta hiru ikastetxeek joan den ikasturte bukaeran egindako proposamenari jarraituz. Proposamen haren arabera, Tolosako Udalak dirulaguntza bat emango lieke proiektu horretan ari diren ikastetxeei, kontuan hartuta errefortzu eskolak ematen dituenak ikastetxeei, zerbitzu hori emateagatik, aurkeztutako fakturak.

Orain, hiru ikastetxeek 14-15 ikasturteko irail, urri, azaro eta abenduan errefortzu eskolak emateagatik egindako gastuei dagozkien fakturak aurkeztu dituzte (irakaslearenak), Tolosako Udalak dagokien dirulaguntza eman dakien.

Ikusita, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak, proposatutakoa, alde batetik, Hirukide eskolapioak ikastetxeak, Orixe institutuak eta Laskorain ikastolak aurkeztutako dokumentazioa eta, bestetik, euskarazko errefortzu eskolen plangintzaz lehendik hartuta dauden erabakiak (Gobernu Batzarra, 2014-07-18).

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Honako dirulaguntza hauek ematea aipameneko ikastetxeei, 14-15 ikasturteko irail, urri, azaro eta abenduan eman dituzten euskarazko errefortzu eskolengatik:

Hirukide eskolapioak ikastetxeari .....	2.126,12 euro
Laskorain ikastetxeari.....	2.126,12 euro
Orixe institutuari .....	2.126,12 euro

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta interesatuei.

## 3.- Korrika.

Euskal Herri osoa zeharkatuz bi urtetik behin egiten da euskararen aldeko Korrika eta aurten egokitzen da egitea.

Ekimen hori dela eta, Korrikaren antolakuntzak dirulaguntza eskatu dio Tolosako Udalari.

Beraz, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Korrikaren antolakuntzari 1.000 euroko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza departamentuari eta Korrika antolatzaileei.

#### **4.- Herri Urrats, Kilometroak eta Nafarroa Oinez.**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Kilometroak, Nafarroa Oinez eta Herri Urratsi 1.000na euroko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea interesatuei, Euskara eta Hezkuntza Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

#### **5.- Dirulaguntzak kanpoko ikasleentzat.**

Aitzol Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten ari diren ikasleek egindako eskaera ikusita, eta kontuan izanik batek beharrezko baldintzak betetzen dituela eta besteak, aldiz, ez, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeak honi buruz jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Ondoren zehazten den ikasleari dirulaguntza kopuru hau ematea:

. A. E. L..... 103,00€

**BIGARRENA.**- U.A.I.ri eskatutako dirulaguntza ez ematea, ez duelako betetzen udal ordenantzek exijitutako baldintzetako bat (asistentziarena).

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Batzordeari eta interesatuei.

#### **6.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.**

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Ilarki Elkargoak aurkeztutako 72.960,07 euroko faktura onartzea, urtarrileko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

#### **7.- BERRIZ Enpresa Tolosa Programa.**

Berriz-Enpresa programa da enpresa-eskualdaketarako programa bat, zeina zuzenduta dagoen arrazoi desberdinengatik ixtea aurreikusita edukita beste enpresari baten eskuetara pasata itxiera saihesten duten enpresetara.

Programa hau kudeatzeko, euskal ganberek eta Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun sailak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute, beraren bitartez adierazten dutelarik zein diren programaren baliabideak, metodologia, jardueraren eremua eta egutegia.

Tolosaldea eskualdea aukeratu zuten programaren fase piloturako, 2014ko irailetik abendura bitartekoa. Handik aurrera, programa Euskal Autonomia Erkidego osora zabaldu da.

#### **Oraingo egoera.**

Tolosako Udalak laguntza ekonomikoko lerro bat sortu du BERRIZ-ENPRESA programan parte hartzen duten Tolosako enpresei laguntzeko. Laguntza-lerro horrek lagundu egiten du enpresa horien posizionamendua beste udalerrietako enpresena baino hobea izaten.

Gainera, udal-laguntzen lerro honek badauka Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikorik.

Alde horretatik, Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Sailak, 2014ko abenduaren 30ean, 60.750 euroko laguntza bat eman du izen honekin aurkeztutako programarentzat: "Tolosako Udala enpresa-transmisioko proiektua"

Tolosako Udalak, berriz, 2015eko aurrekontuetan 121.000 euroko partida bat onartu du programa gauzatzeko.

Bestalde, Berriz-Enpresa TOLOSA programa Tolosa&Co elkarteari aurkeztu zaio 2015eko urtarrilaren 19an.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta Merkataritza Teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Proiektu hau onartzea eta martxan jartzea komunikazio-plan berezi baten bidez. Plan horrek kontuan eduki behar du orain arte Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Ganberak egindako komunikazioa. Komunikazio-Plan berezi horren aurrekontua, gehienez, 12.000 eurokoa da.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Merkataritza departamentuari.

### **8.- Dirulaguntza familia bati.**

Gizarte Politikak eta Osasun batzarrak **C.G.** familiko kasuari buruz egindako txostena ikusirik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Etxe mantenura beharrezko dituen gastuei aurre egiteko 690,00 €ko dirulaguntza ematea aipatu familiari.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea eskatzaileari, Kontuhartzaileari, eta Gizarte eta Osasun departamentuari.

### **9.- Kontratuen prezioak eguneratzeko proposamena.**

Udalaren kontratu gehieneko prezioa eguneratzeko erabiltzen den indizea KPIa, 2014an negatiboa izan da:

% - 0,70 Euskal Autonomia Erkidegoan

% - 0,83 Hego Euskal Herrian

Kontratuen berrikuspenetan indize negatibo hauek aplikatzeak kontratuen prezioaren jeitsiera dakar.

Dena den, hainbat kontratuetan 2013an prezioak ez ziren igo. Izan ere, orduko egoera ekonomikoari aurre egiteko kontratuen prezioak ez igotzeko udalak egindako proposamena onartu zuten hainbat emakidunek.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Orokorrean, KPIa aplikatzea eguneratzen diren kontratuetan, hau negatiboa bada ere.

**BIGARRENA**.- Udalak egindako proposamena onartuz, 2013an prezioa igo gabe geratu ziren kontratuetan, 2015ean aplikatu beharreko KPIa negatiboa denean jeitsiera ez aplikatzea.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari.

#### **10.- 45/2014 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzailletzak **45/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **379.311,73** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

#### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- **45/2014** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailletzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:**

**46/2014 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **46/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **163.692,56** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I D U**

**LEHENA.-** 46/2014 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**